

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZAMBRANAKO UDALA

#### **Arau subsidiarioen 10. Aldaketa puntualaren testu bategina behin betiko onartzea 77/2019 espedientea**

Udalaren 2020ko irailaren 11ko osoko bilkuraren erabakiz, behin betiko onartu zen Zanbrana-ko arau subsidiarioen 10. aldaketa puntualaren testu bategina.

188/2020 Foru Aginduan xedatutakoaren arabera, bertan adierazitako baldintzak ez dira funtsezkoak, eta, beraz, ez dago zertan jendaurrean jarri.

Ebazpen horren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako dagokion epaitegian. Horretarako bi hilabete izando dira, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Dena dela, aurreko paragrafoan aipatutako administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu aurretik, argitaratzen den ebazpen adieraziaren aurka berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahal izando zaio, nahi izanez gero, ebazpena eman duen organoari. Horretarako hilabete izango da, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Zanbranan, 2020ko irailaren 11a

*Alkatea*

*AITOR ABECIA JIMÉNEZ DE ABERÁSTURI*